

bilbao **museoa**

BBKateak

Cassatt – Cualladó

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

bbk 

Cassatt – Cualladó

20. aretoa

Eraikin zaharra


0 solairua

Amatasuna, edo ez

Cassattek zehatz-mehatz deskribatzen du bere pinturaren gaia tituluan. Hala ere, baldintzatutako historiografiak “amatasun” hitza hartzen du, maiz, emakume batek, bizkarra emanda eta besaulki dotore batean, haurrari eusten dion eszena deskribatzeko. Dena den, batzuek zaintzaile bat ikusten dute, eta mutil koxkorraren keinuan, pena, ikusten ez dugun amarengandik banantzen delako. Cualladok nahiago du aurrez aurre jokatu, eta inguru-minguruka ibili gabe erretratatzeko du ama kulunkaulki xume baten ondoan, bai eta bere burua ere, soil eta neorreal.

0

Eraikin zaharra
0 solairua



Mary Cassatt

1844-1926

AEBetako Filadelfiako Pennsylvanian ikasi zuen, Arte Ederren Akademian, eta gazte-gaztetatik Europara bidaiatu zuen sarri, museo ugari bisitatuz. 1865ean, Parisera joan zen Jean-Léon Gérômerekin ikasten jarraitzera, eta hango aretoetan erakusketak egin zituen aldian behin, 1870etik 1876ra bitartean. 1875ean, han bizitzen geratu zen, behin betiko. Eguneroko bizitzako eszenek, familiako emakumeak eta haurrak protagonista zirela, orobat antzerki edo operako gaiek, Degasen miresmena piztu zuten, eta margolari inpresionisten zirkuluan sartu zuen hark. Askotan erakusketa kide izan zituen artista horiekin izandako harremanak eragin zion ondorengo langintzan, eta, edonola ere, arrakasta lortu zuen mendearen azken hamarkadan, nola kritiketan, hala salmentetan, Europan eta AEBetan bakarkako lehen erakusketak egin zituenean.



Emakumea eserita haurra besoetan duela

c. 1890. Olioa mihisean

Obra hau Bizkaiko Probintzia Diputazioak erosi zuen, 1919an Bilbon egin zen Pintura eta Eskulturako Nazioarteko Lehen Erakusketan. Luis XVI estiloko aulki lakatuak barnealde burgesa iradokitzen du, eta medailoi erako bizkarraideak konposizioaren forma inguratzaileak bideratu ditu. Intimitate handiko eszena da, sentimentalismorik gabe samur iradokia, eragile direla bai haurraren eta bizkarrez dagoen emakumearen arteko kontaktua, arreta gabe bata, garbitze-lanetan bestea, bai eta kolore leuneko paleta ere. Pintzelkada solteak eta mihisearen zirriborro-izaerak irudikatutako gaiarekin bat datorren freskotasuna ematen diote lanari.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena 1920an

Gabriel Cualladó

1925-2003

Prestakuntzan autodidakta izanik, argazkilari afizionatu moduan definitu zuen bere burua beti, baina XX. mendearen bigarren erdian Espainiako argazkigintza berritzeko mugimenduaren aitzindarietako bat dela aitortu izan zaio. Sortzeko askatasun handiz lan egin zuen, piktorialismotik urrun, eta gerraosteko errealitate tristea hurbiletik erretratatzuz –familia, lagunak, sarritan ibilitako lurraldeak–, ikuspegi humanista eta poetikoz. La Palangana kolektiboko partaide izan zen, eta AFAL taldeko jardueretan parte hartu zuen; talde horren aldizkarian, argazkilari espainiarren eta atzerritarren lana ezagutzera eman zuten. Argazkilaritza arte-genero moduan aitortzearen bultzatzaileetako bat izan zen, bai eta Espainiako Argazkigintzako Sari Nazionala jaso zuen lehena ere, 1994an.

Gabriel “Gabi” Cualladók bere ingurukoen sentimendua islatzen zuen argazkilaritzaren bidez. Inguruko espazioen eta pertsonen gizatasuna erretratatzeko borondate argiaz, arreta berezia jartzen zuen xehetasun intimo eta egunerokoetan. Estilo soil, zuzen eta artifiziorik gabekoa erabiliz diskurtso estetiko sakona osa zezakeela erakusten zuen horrela. Aurrez aurreko estatismoaz gainera, bere garaiko Espainiako gizartearen gainbehera adierazteko zuen begirada sentikorra da artista honen obraren ezaugarri aipagarrienetakoa; egileak berak adierazi zuenez, interes haren arrazoia zen “espainiar argazkilaritza gelditu zela auskalo zer garaitan, uko eginez Gizateriari laguntzeari urteetan barrena ibilitako bidean”.



Andre zaharra geltokian

1954. Zilarrezko bromuro-gelatina paperean


Artistaren dohaintza 1985ean



Urtekariko neskatoa

1957. Zilarrezko bromuro-gelatina paperean

Artistaren dohaintza 1985ean



Autorretratua kamisetarekin

1958. Zilarrezko bromuro-gelatina paperean

Artistaren dohaintza 1985ean



Asturiasko upeltegia

1958. Zilarrezko bromuro-gelatina paperean

Artistaren dohaintza 1985ean



Gabriel potroarekin

1963. Zilarrezko bromuro-gelatina paperean

Artistaren dohaintza 1985ean



Gure ama kulunkaulkiarekin

1974. Zilarrezko bromuro-gelatina paperean

Artistaren dohaintza 1985ean

BBKateak

BBKateak erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.